

MAIATZAK 17KO MANIFESTUA; HOMOFOBIA, LESBOFOBIA, BIFOBIA ETA TRANSFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Gaur maiatzak 17an homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen dugu, duela 26 urte aldarrikapenak egin ondoren Osasunaren Munduko Erakundeak homosexualitatea buruko eritasun bezala hartzeari utzi egin zion, honek urrats handi bat suposatu zuen aniztasun sexuala gizartean onartua izateko.

Sexu orientazio eta genero nortasunean oinarritutako diskriminazioaren aurkako borrokan jarraituko dugu E28 Plataformatik. Aurreiritzi eta ezjakintasunetik datorren diskriminazio honek berdintasun printzipioarekin talka egiten du, gure sexu-orientazioa edo genero nortasuna edozein izanda eskubide berdinak ditugulako. Nahiz eta azken urteotan aurrerapenak lortu diren, gaur egun oraindik LGTBI pertsonak indarkeria jasaten dugu munduko hainbat herrialdeetan.

Heterosexualitatea da araua, legezko, osasuntsu eta egokitzat hartzen den bakarra, beste aukera guztiak gaitzesten direnik. LGTBI pertsonak jendaurrean afektua erakusteko beldurra daukatela nabaritzen da, askotan lesbiana, gay, transexual eta transgenero pertsonak sekretuan edo intimitatean bizitzen dituzte euren afektu harremanak eta genero nortasuna urteetan egondako errepresioa dela eta.

LGTBI mugimendutik gure eskubideak aldarrikatzen jarraituko dugu eta gure bizitzak askatasun osoz eraikitzeke etengabeko borroka oraindik dirau, gizartearen heterosexual ikuskera aniztasunerantz zabaltzeko.

Gaurko egunean ezin ditugu ahaztu azken hilabeteotan Nafarroan eman diren urratsak, alde batetik LGTBI área sortzeko mozioa onetsi da Nafarroako Gobernuan, bestetik Iruñako udaletxean zentru eta area LGTBI baten sortzea sustatu da eta, oro har, instituzio publikoen laguntza erakusten duten hainbat ekintza ikusi ditugu.

Horregatik gaurko egunean beste behin ere, hemen elkartzen gara manifestu hau guregan hartzeko eta deialdia egiten dugu instituzio, elkarte, bai gizarteari orokorrean gurekin bat egiteko.

Gure aldarrikapen guztiak bete arte elkar jarraitzen dugu, GORA LGTBI BORROKA!!!